

## Portugaleteko Udalaren Kirol Sozietatea S.A (Demuporsa)

### **Onetsi mantentze-lanak egiteko behargin bat (bigarren mailako ofizial bat) hautatzeko lehiaketa-oposaketa bertan behera uztea**

Portugaleteko Udalaren Kirol Sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2017ko maiatzaren 11n eginiko bilkuran hauxe onetsi zuen:

Behin mantentze-lanak egiteko behargin bat (bigarren mailako ofiziala) lanposturako aldi baterako lan-kontratudun gisara jarduteko hautabideetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaituta, deialdirako oinarri-arauak 2017ko martxoaren 23ko BAOn (58. zenbakikoa) argitaratu direlarik eta berorien laugarren atalak dioenarekin bat etorriz, Epaimahai kalifikatzaileak 2017ko apirilaren 25ean mantentze-lanak egiteko behargin bat (bigarren mailako ofiziala) lanposturako aldi baterako lan-kontratudun gisara jarduteko hautabideetan parte hartzeko hautagai onartuen eta baztertuen zerrenda onetsi zuen.

Halarik ere, 2017ko apirilaren 27an Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak jakinarazi zion Demuporsari, deialdi honen bitartez bete beharreko lanpostuaren titularrari, hau da, mantentze-lanak egiteko bigarren mailako ofizial gisara diharduenari, Bizkaiko Lan Zuzendaritzak ezintasun iraunkor osoko pentsioa aitortu diola, ondorioak 2017ko apirilaren 27tik aurrera dituelarik.

Horren guztiaren kariatara, Demuporsaren administrazio-kontseiluak hauxe onesten du:

**Lehenik.-** Bertan behera uztea mantentze-lanak egiteko behargin bat (bigarren mailako ofiziala) kontratatzeko lehiaketa-oposaketa, zeinen oinarri-arauak 2017ko martxoaren 23ko 58. zenbakiko BAOn argitaratu baitziren. Izan ere, egiaztatu da langileari Gizarte Segurantzak ezintasun iraunkor osoa eman diola. Horren ondorioz, aipatutako langilea Demuporsaren plantillatik kanpo geratuko da.

**Bigarrenik.-** Bertan behera uztea 2017ko maiatzaren 19an 10:30ean UNEDen (Ignacio Ellacuría parkea 2 eta 3- 48920 Portugalete) egiteko zegoen proba teorikoa.

**Hirugarrenik.-** Iragarki hau Portugaleteko Udalaren iragarki-taulan (Solar plaza z. g.) eta Udalaren webgunean ([www.portugalete.org](http://www.portugalete.org)) argitaratzea.

Portugalete, 2017ko maiatzaren 12a. Demuporsaren Administrazio Kontseiluko Presidentea. Iker Villalba Batalla

